



San Juan kalea 1  
20560 OÑATI  
Tel.: 943 78 12 04 • Faxa: 943 78 31 88  
Posta-e: [txantxiku@ikastola.net](mailto:txantxiku@ikastola.net)  
[www.txantxikuikastola.net](http://www.txantxikuikastola.net)  
IFK: F-20072195

## Abenduaren 3a, Euskararen Nazioarteko eguna 2014

Kaixo,

Dakizuenez, abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzen da. Hori dela eta, honako egitarau hau antolatu du datorren eguaztenerako.

HAUR HEZKUNTZA		
9:00-10:15	Eguna girotzeko ikasleek Argixoren irudia koloreztatu, abestu eta gure Argixoren txanoak eta kriseilua jantziko dituzte. Ikasleek Argixoren bisita izango dute.	
10:15-11:00	DBH 3. mailako ikasleen eskutik "GURE KANTU ETA KONTUAK"	
11:15-11:30	5 urteko ikasleek euskal kanta eta jolasak eskainiko dituzte aretoan.	
11:30-12:00	Argixorekin batera dantzalditoxa jolastokian.	
LEHEN HEZKUNTZA		
LH 1-4	9:30-12:00	Herriko hiru ikastetxeetako LH1, LH2, LH3 eta LH 4ko ikasleak euskaraz jolasean arituko dira kiroldegian. Ondorengo ekintzak egingo dituzte: <ul style="list-style-type: none"> <li>Jolasak.</li> <li>Hamaiketakoa.</li> <li>Amaiera ekitaldia: "Euskara da Euskal Herri" kantua eta koreografia.</li> </ul>
LH 5-6	9:30-12:15	Txantxiku ikastolan bertan, euskararekin lotutako hainbat jarduera.
BIGARREN HEZKUNTZA		
DBH 1-4	14:30-16:30	TTAK, Txantxiku ikastolako ikasleen Euskara Taldeak antolatutako <b>JAIALDIA</b> : karaokea, bideo emanaldiak... Gaztelekuan.
BATXILERGOA	11:00	<b>Berba eta txokolatia</b> : euskarari buruzko "word-caffe" saioa Gaztelekuan.
	13:00	Santa Ana antzokian: " <b>Lingua Nabajorum</b> " antzezlan.
ETA GAINERA...		
16:45	Tailerrak eta jolasak euskaraz plazan.	
18:00	<b>KANTU SAIOA</b> : familia giroan euskal kantu tradizionalak abestuko dira. Saioari hasiera emateko 6. mailako ikasleek koplak kantatuko dituzte. Guraso Elkarteetako kideek txokolatea banatuko dute dohan eta DBHko ikasleek euskararen aldeko mezua duten bizkotxoak salduko dituzte euro baten truke. Saio hori udaletxeko kontzejupean izango da.	
Abenduaren 4an, eguna	19:30	" <b>Desentxufatuak, euskaldunberri zaharrak ez dira inoiz hiltzen</b> " antzerkia Gaztetxean.
	20:30	<b>AFARI TERTULIA</b> Makalena Elkartearen. Patxo Telleria eta Mikel Martinezekin afaria eta afal osteko tertulia euskararen egoeraz. Afarirako txartelak Txokolategixan erosi ahal izango dira. Prezioa: 12 € (langabetuak eta ikasleak 8 €). Izena aurrez eman beharko da helbide honetan: <a href="mailto:euskarainati@gmail.com">euskarainati@gmail.com</a>
KAZETARI TALDEA.		
Oñatiko ikastetxeetako osatutako kazetari taldeak Euskararen Egunaren berri emango du herri komunikabideetan eta Goienan.		

Egitaraua gustukoa izango delakoan, ekintzetan parte hartzera animatzen zaituztegu. Bien bitartean, har ezazue gure agurra.



TXANTXIKU IKASTOLA

